

# BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## 1416

*EBAZPENA, 2023ko martxoaren 14koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, Euskadiko Tiro Olinpikoko Federazioaren estatutuetan aldaketak onartu eta EAeko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzen dituenak.*

Euskadiko Tiro Olinpikoko Federazioa EAeko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatu zen 1986ko apirilaren 25ean, 84 zenbakiarekin. Federazioaren Estatutuen aldaketa aurkeztu da orain.

Euskadiko Tiro Olinpikoko Federazioak 2023ko urtarrilaren 26an egindako ezohiko batzar orokorrean estatutuen artikulua moldatzeko erabakia hartu zuen, eta onarpen hori agiri bidez frogatu da.

Estatutuen aldaketa bat dator urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan eta Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean xedatutakoarekin.

Ondorioz, nire eskumenak erabiliz, hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskadiko Tiro Olinpikoko Federazioaren Estatutuen 37. artikulua aldaketa onartu eta EAeko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzea. Honela geratuko da idatzita artikulua:

«37. artikulua.– Lehendakaria hauteskondeetara aurkeztu ahal izango da, eta agintaldi kopuru jakinik gabe aurkeztu edota berrautatu ahal izango da.»

Bigarrena.– Legez ezarritako epean jakinarazteko agindua ematea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio-bidea, eta, beronen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaiokete Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 14a.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria,  
GORKA ITURRIAGA MADARIAGA.